

EUSKAL TEATROGINTZA

Antonio M.^a Labayen

MINTZA AL DAITEKE EUSKAL TEATRO BATEZ?

Ez nuen berriro teatroz idazteko asmorik, lehenago ere ez ote nintzen hartaz larregi jardun tan gainezka bait nengoen.

Nere azken antzerki-lanari, “Muñagorri” (1) deritzanari, ezarri nion hitzaurrean, barnean neuzkan guztiak bota nituen, eta emanaldiarekin isilaldia zegokidalako ustez geratu zen: MUTIS delakoan, alegia. Baina bitartean, eta ustekabean, adiskide gazte batzuk, bi hain zuzen, maitekiro bixitai-kustaldia egitera etorri zaizkit etxera. Galderaz ezik losintzaz josi naute eta azkenik euskalzale gazte bi horiek, Mikel Antza eta Josu Landa dute izena, “Argia” (2) astekarian nere mingaina dantzaraziz honako honek esanda-koak azal ederrez apaindurik lau edo bost orrialde bete dituzte argazkiz hornituak. “Euskal Antzerkiaren giltzarri” ornen naiz eta (ez dut behin ere sinetsi hori egia debik). Baina bai “mende honetako euskal antzerkigintzaren lekuko”.

Berriketan hasi ginen, beraz, erantzunik ez ematea giza-legearen aurka bait dijoa. Eskerona agertzea bidezkoa da beti; are gehiago beste askok ahazturik naukatela jakinik. Komerigile honi buruz nonbait idatzi bait da “ignorantzia bete nagoela”. Ez nuke esango txar xamarra ez naizenik; eta uztioak daukagu ikasi beharra; erti-lan guztietako oraingo aldaketak direlata aitortu behar dizuet ez dakidala zer den teatroa. Duela berrogeitamar urte sortu genuen “Antzerti” teatro-aldizkari xumearen sortzaile izan nintzen euskal teatroari indarra emateko xedez. Gaur, zorionez, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, “Antzerti Zerbitzua” eraturik dago, aldizkari eder eta berezia duelarik; Euskal Gobernuako Kultura Sailak saiaketarako areto eta leku oparoak jarririk ditu bere gain. Eta itxaron daiteke urte gutxi barru euskal

(1) *Graficas Valverde, S. A. Donostia, 1978*

(2) *Argia astekaria. Donostia. Azaroak 27. 994 zkia.*

teatroak aurrerapen haundia har dezakeela. Egia da erdal teatroa bere haunditasunean ezingo dugula behin ere baztertu ahal izango. Baina guk, euskaldunok gogoan hartu behar dugu euskal teatroa tresnarik bizienezakoa dugula euskara mintzatua gure gizartean entzun izan dadin beti eta beti.

ZAHARRAK BERRI

Honela entzun ohi da esakuna, eta ez da gezurra.

Benetan, bestelako teatro hazi landare gutxi sumatzen dugu aintzinako herrietatik hasi eta gurerraino. Zer adierazi niezazueke bada, lehendanik entzun edo irakurri ez didazuenik?

Zalantzarik gabe esan liteke euskal herri txikarrak Antzerkiari zertxobait erakarri diola, hor ditugu eredu jatortzat gero aipatuko ditugun baserri-baserriko "pastularak". Ezin aitortu ahal izango dugu, noski, gure teatroaren erakar-ahalmena ugaria ta gain-gainekoa izan denik bikaintzat jotzeko hainakoa. Gure teatroa nekazari herri xumearen araberrakoa neurri apalekoa behar zukeen, nahi ta ez. Literaturaz landu gabeko hizkuntzaz egina izateak politikan sakabanatua egoteak ez zuen posible egin hiri haunditako teatrogintza sortzea. Inoiz ezagutuko ahal dugu euskal teatro "moderno" bat? Nork daki? Agian bai, emeki-emeki ibiliz.

Aspaldi aipatu nituen Lessing aleman kritikari haundiaren hitzak: "doch man nicht wachsen sieht, findet man nach einiger Zeit gewachsen" (3): alegia: "hazitzen ez ikusiagatik aldi baten ondoren haziturik ikusten dugu". Lessing bat ez zaigu oraindik gure artean jaio euskaraz egundaino egin diren lanak aztertzeko. Lessing kritikari jakintsu eta jantzia izanik egia-rena eta zilegigoaren neurrian zebilen; pentsalari eta olerkari sakona izanez gero, honelako gizonak hezi lezakete gure gazteria, atirrerakoikeria txorogure teatro berria txertatuz. Gai egokia Euskal Unibertsitateko ikasle saiatuentzat. Nondik hasi? Gaur jakin badagiku Peñafiorida konteak (Xabier de Munibe) "El borracho burlado" opera irritsua ezik Goldoni-ren "El criado de dos amos" (4) eman nahi izan zuela. Garai hartan bertan Lessing izan zen Goethe eta Schiller dramagintzara bultzatu zituen. Esan beharra dago, gainera, Lessing Mancha-ko Quijote-ren zale izan zela, ta alemanierara itzuli nahian ibilia.

Luzea ta zailtxoa irudituko zitzaion Cervantes-en lan gailena, eta alde batera utzirik 1762 urtean gure Joan de Huarte-ren "Examen de ingenios" alemanierara itzultzen ausartu zen. Eta ez hori bakarrik: Agustin Montiano ta Calderón de la Barca-ren zenbait teatro-lan aleman hizkuntzara bihurtu zituen.

JAKINTZA ETA KULTURA

Arrazoi haundiz J. I. Uria nire adiskide eta letradun ospetsuak jakintza ta kulturaren motz gabiltzala idatzi zuen. Azkoitiar senatoreak zioenez, egun

(3) "Hamburgische Dramaturgie". Leipzig.

(4) L. M. Areta "Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País."

gure artean liburu asko, erruz behar bada, argitaratzen dira..., baina besteek lehenago idatzitakoak ez ote ditugun irakurtzen antza ematen zion. Hau ondotxo dakit nereko. Horregatik gure teatroari buruz idatzi izan ditudana berriz “errepikatzea” barkakizun izango al zait. Hemen ere beste toki gehienetan bezala Teatroa Elizaren babesean hasi eta sortu ote zen nago. Zuberotarrok Añamendiko gure anaiok beren lurraldeetara ta hango euskara bizi eta kantarira aldatu zituzten “pastoralak” oraindik orain Maule, Garindein, Atarratze, Barkoxe, Mendibe eta inguruetan, egun jakinetan antzesten dituztenak. Grezia-Erromako trajedia ta antzerti mailara ez ziren gure asaba zaharrak iritsi. Esan daiteke, ordea, Eleizak eta kristautasunak piztu zutela teatroaren garra. Duret Poitiers-ko irakasleak oroitarazten digunez eleizkizunek teatroaren antza bait dute. Eleiza antzokia da: apaizak irudi eta antze lari; eta eliztarrak, kristauok herri jendea. Zuberotarren “pastura” ere iturri horretatik edo datoz. Herelle jaunak aztertu ditu sakon eta begi zorrotzez pastoral horien zer-nolakoak. Baionako “Gure herria”, “Revista Internacional de Estudios Vascos”, “Comité de Travaux Historiques” eta beste toki askotan oparo ta ugari idatzi du. Violet Alford andre inglesa oraindik orain gai beraz jardun da: “Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberota”.

Gaurregun ere pastoralak ez dira agortu. Giro onak lagunduz antzeslari taldea karrikaz-karrika ibili ohi da dantzari eta doinua aurretik duela. Ikuskizuna harrigarria zaie arrotzei eta ez dira asperten ikerketak egiteaz. Teatrozale gazteek gero eta garrantzi haundigoa ematen dietela dirudi eta haien azken iritziak aurrerago jasoko ditugu.

Bidasoz alde honetan, damuz, ez genituen ezagutu gure anaia zuberotarren pastoralak, beren doinu, dantza, bertsoaldi eta ikusgarri alaiak eta guzti. Oso berandu Martin de Angiozar donostiar idazle iaioak *Euskalerraren alde* aldizkarian 75 izen eman zizkigun. Hauetatik berrogeitamar, eskuz eginak, Bordeleko Liburutegian daude. Donostian ez dugu bat besterik eta hura Aita Lhandek eskeinia. Esan dizuedanez teatro mota horiek herri arauz xalo-xalo mamituak ez dituzu ikusleak jolastu eta festa sortze-adinakoak. Ordurako eraberriko antzerti-joku bat sortua zen Europako herrialdeetan. Italian lehendabizi “Commedia dell’Arte” zeritzana, Ehzatik kanpo taxutua, zeharo jostalari, atsegin eta irrisua, bere Arlekin eta Polixinelekin. Hala ere Croce-k dioenez, Espainiak luzaroan uzkur egin ornen zion arte berriari Vives eta Feijoo-rarte. Urte asko joan ziren bere hartan. Zertan ginen euskaldunok garai hartan? Egia aitortzeko gure euskara haundiki eta jende nagusien artean ezetsia zegoen. Oinperatua Larramendik “El imposible vencido” burutu zuenaren arte. Peñaflozidako Konte jauna gorai patu dugu eta gero ere zor diogun goresmena emateko asmotan gaituzu.

Bitartean teatroaren beste aztarnen bila abiatzea beharrezko zaigu.

(5) *Euskal Antzertizaren edestirako apur batzu-teatro osoa euskaraz. La Gran Enciclopedia Vasca, Tomo III.*

TEATROAREN AZTARRENEN BILA

Hauek gure ohitura jator, folklore, kalejira, eta eresiak aztertuz aurki ditzakegu. Olentzero, Pasioko elizkizun, eliz-bira eta prozesioak berak teatroaren ernemin eta haziak dira. Eta Elizatik at “sensibles animados”-en antzekoa. Erlizioz kanpo berriz, esate baterako, Irun eta Hondarribiako agerkariak; Tolosan Beotibarren oroimenez egiten dena; Elorrión Lepantoko gomutaz eta Antzuolan Valdejunquera-ren oroigarritzat egiten dutena.

Baina ez ditzagun gure asmo eta ametsak egia bihurtu. Bertsolariek elkarri jaurtikitzen dizkioten zirikadak ere edozein komedia irrisuan ser dai-tezke. Negar-eresietan, berriz, ez dago zeresanik. Gau-hila eta hiletak barrena inñarosteko indar haundia dute. Alos Torreko eresi eta erostak, V. Arakistainek bere “Leyendas cántabras” liburuan hain ederki jasoak aski lirate-ke, antzer kigile batek izugarritzko zorigaitz-antzerki bat antolatzeke.

Alos-Usoa, etxeko alabaren ezpainetan ipintzen dituen neurtitzak (aita hil zaionean) zinez hotzikara ematen dutenetakoak dira.

Ai au mindura beltza!
 Ai nire lotsa!
 Alabak negarra ta
 Aitak Bur otza.
 Zeñek loitu zaitu zu
 Allos Torrea?
 Ai! nere aita maitea
 Iltzea ondo egin dezu
 Aita jaun maitea!

Racine-n bertso batzuk gogora ekartzen dizkit “Iphigénie en Auride” deritzan trajedikoak, Alos Usoak aitari bezala Mitridateri zuzenduak:

Le tombeau, seigneur
 est moins triste
 que le lit d'un époux
 qui ma fait cet outrage

Honelako hamaika edertasun aurki daiteke gure ipuin, eresi eta bertso-larietan. Begi ona erakusten digu Yon Etxaide-Itharte, gure adiskide maiteak Etxahun-en “Haide delizius huntan” sakonki eta luze-laburra ikertzen ari zaigularik.

Detxepare apaizak “Linguae vasconum primitiae”, euskaraz lehenengo argitaraturiko gutuna kanpoan dabil. Leizarraga, Etxeberri eta Mendiburu dihoazkio, atxetik.

BERPIZKUNDEA?

Xabier Munibe, Peñaflozidako Konte Jna, ez dugu behar haina goretsi, eta are gutxiago Bergarako Ikastetxearen iraspenera Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen ardurapean. Azkoitiko zalduntxoek, edo izengoitiz “Aldea-

nos críticos” deituek Euskal Herriaren berpizkundeari oinarria ipini nahi izan zioten. Beti ere bestera begira bizi beharrean, begi eta bihotzek sor-lurrera makurtu zituzten; Euskal Herria altxa nahiz bertako ondasun, nekazaritza, hizkuntza eta jakituria suspertuz.

Hona hemen Peñafloridak elkarte horretako arautegian besteak beste agindutakoa:

“Primero que hagan feliz y envidiable el vascoence, escuela de erudición, manantial de bien público y compañía perpetua de ilustres sabios que, unidos todos en un objeto lo logren con admiración de las naciones”.

Gero antzerkiaren alde lehiatzeko azaltzen digu:

“Segundo, que era precisa una honesta diversión para el tiempo en que se juntasen tantos caballeros en un lugar. Que no se podía escoger otra más útil y amena que la del teatro”.

Eta hau egiaztatzeko Konte jaunak komeritxo irritsu bat euskara-gaztelanian taxutu zuen. San Martin Agirre donetsu zuteneko jaiak zirela eta, 1764 urtean Bergarako Murua Jauregian antzestu zuten. Ordurako Peñafloridak “maskaradak” ezagutu ote zituen? Ez da erraza jakitea. Ezetz esango nuke. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen asmoak zeharo galdu ziren. Frantziako matxinada izan zela eta “konbentzional” deitu matxinada, soldaduek Gipuzkoa zapaldu zuten. Geroxeago Napoleon-en jazarrak Espainia osoaz jabetu ziren. Gudari taldeak dabiltzan tokietan ez da geratzen gosea, odola, izurritea eta mixeria besterik. Gauzak gehiago nahastean karlisten bi gerrate luze eta saminek hondatu zuten gure herri gaixoa. Zelai eta mendiak anaien arteko odolez gorrituak utzirik, jakintza gaietarako kemenik gabe. Nor oroitzen da orduan teatroaz? Eta hala gertatu zen azkenik 1786 aldera karlista gudatea amaitu zen arte.

MARZELINO SOROA

Zorigaitzoko urte luzeen ondoren eta hainbeste borroka, gudate, hondamen eta txikizio ikusi eta jasan ondotik, herriak burua jaso eta pakea noiz iritsiko zai daude. Ez da harritzekoa. Donostia batipat, 1813 urtean erabat erre, kiskaldu eta suntsitua izan zelarik pakeak eta lanak bakarrik jarri zezaketen zutik. Eta bai hori erabaki donostiar adoretzuek Zubietako auzoan bildurik. Pakea eta lanaz batera gasteriari eta jende umotuari ere laister festa eta jolaserako gogoa pizten zaio. Soldaduzkako mixerietatik zerbait ikasi zuten: musika eta doinua jotzen, taldeka kalez kale ibiltzen, pasatako nabigabeak ahaztutzearren, edo legungarri behintzat. Orduetik datorkie zaletasuna. Garai hartakoak dira Sarrriegi eta Santesteban musikariak eta Bixente Etxegarai, Serafin Baroja, Bilintx eta beste zenbait bertso egile. Eta hemen aipatu behar dugu Marzelino Soroa donostiar gizaseme jatorra, ile-kixkurra eta aldarte onekoa. Egiatzko koxkeroa. Erdaraz eta euskaraz oso bizi egiten zuen eta “Azak eta Naste” deritzan liburutzuan ipuin eta xelebrekeria asko idatzi zituen.

Ez zen batere gudazalea eta 1876 tutean beste donostiar askorekin ihesi Lapurdiko Ziburua bizitzera joana zen han sortu zuten komeria moduko “Iriyarena” jostirudia. Erdaraz idatzia zegoen eta euskaraz zerbait sartu zion. “El trueno” zeritzan toki txiki batean antzeztu zuten. Eta gauza jakingarria, jostirudi hortan agertu zen lehenengoz Toribio Alzaga, orduan 13 urteko mutil koskorra —ez naiz ausartzen “mukizu” deitzen gero euskal teatroaren maisu izango zenari—.

Beraz, Soroa eta Alzagaren artean dihoaz gure antzerkiaren lehenengo urteak, nik “donostiar dramaturgia” deitzen dudana.

Zorionez pakea egin zen. Euskaldunok, eta batez ere donostiarrok beren lan eta etxeetara itzuh ziren. Eta beren ohitura eta jolasei ekin zieten. Oso gizartekoak izaki beti, orain bezalaxe eta bilera, txoko, lagun-arte eta elkartasun erruz dituzte.

Marzelino Soroa “La infantil del gimnasio” eskola antzeko zerbaiten arduraduna zen. Bazen beste bat “La fraternal” etxe oneko gazteentzako egokia; eta beste bat “La Unión Artesana” gaur ere dirauena. “La fraternal” Lasala plazan ornen zegoen eta bertan Soroa eta lagunak 1878an euskal jaiak ematen hasi ziren. Eta maiatzaren 12 eta 19an “Iriyarena” antzeztu zuten orduko Teatro Principal-en, txalo-jotze haundien artean. Soroa langile bizkorra zen eta izenordetzat “Omar-Celin-Oasor” erabili zuen. Iriyarenaren ondotik “Gabon” “Urrutico inchaurren”, “Anton Caicu”, “Au ostatu-ba”, “Alcate berria”, zortu zituen.

Soroa eta konpainia Donostian ondo hartuak zirela eta beste herritara joaten hasi ziren. Oker ez banago eta nik dakidala, Tolosara ere etorri ziren, 1882an jaitxo bat ematera.

Urrietako euskal jaietan ere agertu ziren Abbadie euskaltzale frantse-saren eta haren emaztearen aurrean. Soroa gizon ausarta zen eta harrera ona egiten ziotela ikusirik, “Anton Caicu” komeria inprimi arazi zuen. Ez zen motz gelditzen zenetakoa. Ale bana Victor Hugo eta Mistral-i bidali zizkien. Hots haundiko bi idazle hauek eskeintza ontzat hartu eta adiskideantzean erantzun zioten, bidenabar euskararengatik gorapen haundiak eginez. Bi idaztiok garai hartako egunkarietan irakur daitezke.

J. M. MANTEROLARI ZOR ZAION OMENALDIA

Egundaino behar adina omendu ez dugun gizona dugu J. M. Manterola. Euskaldun azkar eta bihotz haundikoa. 1880 urtean “Euskal-Erria” aldizkaria ateratzen hasi zena. Aurrea hartu zion 15 edo 20 geroxeago erretu zen euskal pizkunde berri baten susperraldi eta burrundari. Manterolak sortutako “Euskal-Erria” aldizkariaren inguruan adiskide pila bildu ziren. Haien ahaleginak ezagutu eta maite izatera beharturik gaude. Jainkoak “Cancionero basco”-ren egileari bizitza laburra eman zion eta handik lau urtetara, oso gazterik, 34 urte besterik ez zituelarik, hil zitzaigun. Hain zuzen ere, haren buru argitik eta adimen sakonetik gehien itxaro zitekeen garaiean. Zorionez beste gizon gazte jakintsu eta bulartsuak agertu zitzaizki-

gun Etxegarai, Muxika, Oloriz, Arantzadi, Kanpion etab— “Euskal-Erria”ren orrialdeak hornitu ahal izateko, Manterolaren hutsunea betez. Hau ondo jakiteko aski da aldizkari hura irakurtzea. Eta beste zerbaitetaz ere gogoratu behar dugu: hark hartu zituela bere gain “Consistorio de Juegos Florales” zeritzana. Beste hitzetan esanda Santo Tomas eta San Sebastian egunez egin ohi ziren jaialdiak ordukoak ditugula. Garai hartan danborrada-soinuz eta txistorra prejituen usaia artean jaio zela euskal teatro arrunt eta herrikoi bat. Ez soilik Donostian, Iraola pasaitarra genuen; Gangoa, Gorostidi, Illaramendi eta Uranga, errenteriarak. “Testro euskaro” nere idatzi kokkorrean Pastoralak, Maskaradak, Txaribariak, Tobera Mostra eta beste jostaketak aipatu nituen gainetik bederen. Haurrentzako ikusgarri diren guignol, txotxongilo, marionetak deitutakoak ere aipa nitzakeen eta baita nortzu arduratu ziren arazo haietaz ere.

Egungo teatrozalerik argitsueneak, Patri Urkizu, Arozena, Haritschelha-rek, beste bideetatik joan arazi nahi dute. Antzerti berriaren alde hitza atereaz orobat aintzinako Europako era zaharrak goستن ez dira aspertzen. Ricard Salvat, teatro-gizon eta kritikari katalandarrak dioenez, pastoralak izan da “una de les emotions mes altes de la meva vida”. Asko esaten ote den nago. Baina hala ere gure teatro herrikoiaren azterketak oso kuttuntzat hartuak dizkitzu. Eta euskal teatro berriari dagokionez, aurrapenak egin direla ez du inork ukatzen. Egia da, damurik, gure antzezleri taldeek gehienguan erderaz egin behar izaten dutela beren jokuak. Belaunaldi batetik bestera ez dago gauza aldatzerik. Bada okerragorik ere: teatroa mundu osoan kinka txarrean aurkitzen da, lizunkeria, axolagabekeria, eta ankerkeriaren mendean eroria. Irratsaio, telebista eta videoak itzal haundia egiten diote. Keinu, zimiko, jaunak eta gorputzaldiak dituzu nagusi; bilutsik agertzeak hitzak eta mintzoak baino indar haundiagoa dute.

Zerbait berri eta barrenkoi erantsiko zitzaion naski apainketak gaineratuz, baina honako agure honek lehengoak maiteago. Gure idazleok ausartak izan behar dutela esateaz ez natzaizue ikaratuko. Kultura bazter guztietara hedatzen da eta beste antzerkigileek asmatzen dutena gureganatu genezake egokia baldin bada. Nork pentsa behar zukeen Portugal teatrolari den Helder Costa batek “Antzerti” euskal aldizkari xumean ihardun behar zuenik? Ez nintzateke batera harrituko Gil Vicente antzerkigile ospetsuaren lanen bat euskaratuko balu. Gizarajo honek aspaldidanik Castela galiziar idazlearen “Os vellos no deben namorarse” itzulia du: “Atso-agureok maitemiñik behar ez”. Ausarkeria barkatuko al zait! Honetaraino heldu gara teatrogintzan. Ni ez nauze arras baikor. Euskal antzerkiari eusteko herri txikia gaituzu. Komerigeleok ezin bizi gaitezke teatotik nahiz Gobernuaren laguntza izan. Ez dugu publiko jenderik aski teatro emanaldiak antolatu eta ogibidetzat hartzeko. Teatroak Akademiak berak baino indar haundiagoa ditu: baina zaletasun hutsez bizitzea arazo zaila izango da.

“Euskaldun fedea” deitu bileran zuten lagun-arteak. Komeriante korien maila ez zen oso goitarra, aukerakoa, herriko jende xeheari parrea egin eraztekoa baizik. Hala ta guztik, esker ona zor diegu bi gizon jator haiei. Ezin

aipatu gabe utzi Pepe Artola irritsu eta “xelebrea”. Tepsis-en euskal gurdari hasiera eman zioten. Ez dira basterrean uztekoak lan hartan lagundu zieten bertsolariak.

Urte haietan gailentzen hasi zen teatroganako dohaiez eta zaletasunez baterik zetorren Toribio Alzaga, Ziburun bizi izan zena, Marzelino Soroarekin laneginez; Donostiara itzultitakoan euskal teatroari buru-belarri lehiatu zitzaion. Geroztik Alzaga izan zen euskal antzertiari eutsi ziona “Deus et machina” eragin eta pizkortu zuena, nekatzeke, laguntza gutxi izan arren.

1930 urtean ondo irabazitako omena egin zitzaion, 1880 urtean idatzi zuen “Aterako gera” antzerki-lanagatik. Alzagak harrezkero idatzi zituen: “Osaba”, “Tantarrantar”, “Bost urtian”, “Anboto”, “Txanton Piperri”, “Biotz bera”, “Amantxi”, “Neskazarra”, “Mutilzarra”, “Zanpantzar” eta “Andre Joxepa tronpeta”. Hortaz gainera Euskal-Herria aldizkariaren zuzendari izan zen, Manterola eta Arzak hil ondoren eta aldizkariak iraun zuen bitartean.

Euskal teatroak aurrerapen handia egin zuen Alzagaren lanen bidez eta ez da bidezko lagundu ziotenak ahaztea. Gogoan ditugu oraindik Joxe Egileor eta Beorlegi antzezleri bikainak, bebin ere izan genituen onenak nahiz parra nahiz zirrada sorrarazteko ikuslegoari. Ez zen nahikoa euskal teatroari sendotasuna eta jarraipena emateko. Eta Donostiako Udalari laguntza eskatuz, 1915 urtean Academia de Declamación Vasca, Euskal Izkunde antzeko zerbait eratu zuten Abelino Barriola herri-gizon eta euskalzale jaunari esker. Eskola honen zuzendari izatea Toribio

ez du inork ukatuko. Hala gertatu zen eta J. M. Manterolak sortutako asmo eta lanetatik euskal teatroaren beste aro batean sartzen gera. Barriola jaunak, berez teatrozalea izaki, ondoko hauek idatzi zituen: “Meza berria” “Aldiz aldiz”, “Gai dagoenaren indarra”, “Lagun txar bat”, “Maitasunak” etab., eta Elizondo tolosarrak “Dollorra”, “Indartzako jauna” eta “Atzertokia”rekin dramaren hotzikara hedatzen du ikusleen artean.

TEATROAREN UZTA GARAIA

1920 urte aldera, munduko gudate negargarria bukatutakoan esan dezakegu gure teatrotxoak koskortzen hasi zela. Antzezleri eta antzerkigile berriak ernetzen zaizkigu. Eman ditzagun xehetasun batzu.

Andereño batek, Katalina Elizegik, “Garbiñe” eta “Loreti” plazaratzen dizkigu; Garitaonaindia apaizak “Aitona ta illoba” eta “Itziartxo”; oso antzeztuak izan ziren; berdin gerta zitzairen Olaizola, Luxemendi eta Arostegi donostiar euskal teatrozale ospetsuei ere.

Hau ez zen Donostian bakarrik gertatzen. Tolosan Ramos Azkarate herriko senearen “ijito ezkontza” parodia algaraz hartzen zuten. Eta beste horrenbeste jazo ohi zen herri askotan. Baleriano Mokoroa, Amonarriz Telleria, Zabala, Rekondo, Iruretagoiena, etabar, ezagunak ziren gure teatro mundu txiki hartan. Nik neurk esan behar banu, 1920-1930 hamar urteko bitarte hortan indartu eta zabaldu zen gehien. Behinere iritxi ez zen tokietan

leku eman zioten. Adibidez: Gran Kasino, Teatro Victoria Eugenia, eta Gran Kursaal-en ere. Uxola ta il euri dugun Begiriztarin zola onitu ez?

Euskal Herri osoan mugako bi aldeetan Toribio alzagak euskaraturiko “Ramuntxo” arras txalotua izan bide zen. Eta, herri txiki eta apalenetan ere jai egun guztietan “batzoki” eta bilera lekuetan euskal teatro jaitxoak ospatzen zituzten. Hogeitik gora antolatutako egunak izaten ziren edozein jaitan eta jendea pozik biltzen zen bertara txolarte ona igarotzera. Egia da orduan zinea eta telebista ez genituela hain etsai. Beste eragozpen bat ezin aipatu gabe laga.

Euskal antzerkiak ez zuda aukera larregirik gaiez aldatu eta aurrera jarraitzeko. Gizon ahaztu ezin batek aguro ikusi zuen hutsunea. Gregorio Muxika euskaltzale argia, “Euskal esnalea”ko zuzendari zena, komeria berriak argitaratzen hasi zen eta uzta ugaritzen joan zen teatrozaleei erraztasuna emanaz. Idazleok halako abiadura hartu zuten ez bait zuten beren lanak argitaratzeko egokierarik izan. 1935 urteko bilduma batean 200dik gora aitatuak daude. Horregatik honako hau guztiok dakizuen “Antzerti” aldizkaria argitaratzen hasi, zen, gaur, oraindik, Eusko Jaurlaritzari esker-rrak jarraitzen duena. Bestek epai beza lan onik egin duen ala ez.

Teatro uzta ugaria dela ezin uka.

SASKI NASKI!

Teatro mota goitu hau ikuturik, musika, dantza, literatura eta oro barne, “Saski-Naski” bataiatutako erti-sail bikain hau lauki ederretan agertzera ausartu ziren. Ikusgarri aparta Gregorio Muxika, Beorlegi, Egilleor eta lagunak buru zituelarik. Inon eta inoiz gure antzerki jaiok abegi ona izan bazuten, gutxitan “Saski Naski”k hainakoa. Hontaz gero aipatu gabe utzi ez daitekeena “Opera” deritzan musika antzezkiak dugu. Batzu bederik ezin aitatzeke utzi. Hara nola “Pudente” Santesteban-ena; “Artzai mutilla” Ortiz San Pelayo azpeitiarrarena; Guridiren “Mirentxu”; Usandizagaren “Mendimendiyan”, euskal musika munduan zehar hedatu zutena. I. Fagoaga eta C. Agirresaroberi eskerrak Guridiren “Amaya” Madrid eta Berceelonaz gainera Buenos Aires eta Pragan entzun eta ikusia izan zen. Euskal teatroaren kondairatxo hau amaitua legoke ez ordea Bilbo aldean egin zen lana aintzat hartu gabe. Bizkaiko euskaltzaleak Alfredo Etxabe Parada, Bihar, Sota eta bereziki R. M. Azkue maisu haundiaren “Urlo” eta beste komeritxoak aipamena berezi dute. Gauza bera hango euskal gaztedikoek maiz agertu zituzten Campion-en “Pedro Mari”, Arana Goiriren “Libe” eta Txomin Agirrek euskaratutako “Larralde”ko lorea”. Augustin Zubikarai ondarrutarra da ezipairik gabe gaur egun euskal teatroak duen gizonik gailenena.

Eta goazen orain Bidasoaz handiko teatrolarien begi bixta ematera, alde batera pastorgile edo trajeri errientak utzia. Barbier, Decrept, Diharce, Lafitte, Nehor, Salaberri, Sobelet etabar etabar. Ahantzi ditudanak barakatuko al didate! baina gaitz erdi izan dadin amaituko dut zerrenda Minaberry eta Elissagaray andereak goraiapatuz. Eta nola ez Piarres Larzabal gure

antzerkigile ugari eta emankorrena? Beste atal batean leku eman beharko diegu haren inguruan dabilzan eta teatro eskola berria eraikitzen ari zaizkigun Daniel Landart eta lagunak.

TEATRO-BERPIZTEA

1950 urteaz geroztik jo dezagun gure antzezkiunak eta ikusgarriak berpizten hasi zirena. Lehengo arazo zaharkituak ez zituzten inondik “errepikatu nahi”. Gazteak halako ohi dira maixko: garratz eta zirikalarik. Zertan da, beraz, egungo gure teatrotxoak? Gazteok, bixtan da bizi berria eman gura diote. Horretarako antzerkigile taldearen biltzarra muntatu dute. Lan-kide sutsuak ez zaizkie peitu.

Norbaitzu aipatzekotan Daniel Landart, Martin Idiakez izendatu behar. Eugenio Arozena, Etxebeste eta Patri Urkizu kritikal aria ondoren.

KRITIKA ETA MASIAKETA

Gure artean gaitz baldin bada, ezina, antzezleri edo talde batek bere lana ogibidetzat har dezan, teatroa ere bestela ez daiteke luzaroan iraun eta bizi kritika eta masiaketarik gabe. Jendearen atsegina dugu bizigarria; eta kritika eta aukera nahiz murriztuz eta urriena izan aurreruntz jarraitzeko.

Bakoitzak ditugu naski gure gutizi eta aukerak eta atsegin bila gabiltza. Ez dakigu beti zer den on eta zer den txar, epaiketa neurriak ezberdinak bait dira. Honetan guztioi gerta ohi zaizkigu eztabaidak. Adibidez, neretzat Toribio Alzagaren “Andre Joxepa Tronpeta”, haren lanetatik atseginenetakoa da: irudimen biziz, sorgin, azti, iraltxo eta aztikeriaz betea; nere ustez damurik ez da oraindik inprentaratu izan, mereziagatik. Horra hor iritzi ezberdinak. Nerekiko, berriz, eta Julio Caro Barojaren (6) “Teatro popular y magia” liburuaren esanak neregantuz oso zait gogoko eta baita Alzagak asmatu zuen ikusgarria, Donostiako Igeldo mendia kaietik begiratuz, gauez asmatua.

Ilunpea, dantza eta musika kideko ziren, giroari berea emanez.

Gertakizunez gain, eta hortan Toribio Alzaga ez zen motz gelditzen, Irudimena da teatroarentzako indarririk bizigarriena. Gogoeta sakonak eta Literatura eta Olertietako gailurrak, teatroan zerikusi haundia dutela ez dut behin ere ezetz esan. Azken aholku bat egitea zilegi izango al zait! Eta guztiok dakiguna; euskal antzerkiak ez duela harrapatu inolaz beste hizkuntzeko dramagintza haundietarainoko maila. Bide erdian, taiuzko dramakizun, eta, hobeto, komeri neurri atsegin batean gelditzea ez legoke gaizki. Gure helburua bedi gure euskal idazle begikoak eta adiskide izan nuen Barbier Semperere erretore jaunak esan zuena:

Irria luze, nigarra labur. Bertoldt Brecht-ek “Schritte zum theater” halatsu dakarrena: “Unterhaltung”.

(6) *Biblioteca de Estudios Históricos. Revista de Occidente. Madrid.*

Barojatarren izena teatro zerrendan sartu dudan ezker, Pio idazlerik ezagunenak ez dut uste berak aitortzen duenez teatroganako berebiziko grina eta gutzia izan zuenik. Horratiokan “Jaun de Alzate” euskaratua agertu diote... Nik halere Ibsen eta eskandinabitarron joera eta sena gehiago aurkitzen diot. Grezitarron trajerien antza eman diote. Eta oraingo teatrozale berriok “Troyar emakumeak” ikasten lehertu dira. Ene iritzian bide horretatik euskal teatroak indar gutxi hartuko du eta erakar ahalmen eskasa Aristofanes bere Lysistrata eta nabarmenkeriaz josia etorriagarik. Hortxe nonbait Plauto eta gainerako kaikukeria eta lapikokeriaz alaitzera ba datorkigu ere.

IRAKURLEEN LARRITASUN ETA NEKEA

Egundaino edo “santa secula” ez dala gaur haina euskal libururik argitaratu guztiok dakigu. Baina ugaritasun hori gainezka dagoela ageri-agerian dago. Aldizkari eta liburuak erruz plazaratzen direla gauza jakina da. Irakurtzen diren ala ez beste arazo bat da.

“Azkoitiko zalduntxoak” esanik dauka. Nerekiko esango dizuet duela berrogei edo berrogeitamar urte irteten ziren liburu guztiak, euskaldunak, noski, erosi eta irakurtzen nituela. Azken hamar urteotan, aldiz, ezinezkoa zait. Batetik ez dudalako erosteko hainbat diru; eta ezta ere irakurtzeko betarik. Ez al da hau larritasuna? Bestalde egile gehienak berri zaizkit eta erabiltzen dituzten haiei buruz iritzia emateko ez naiz gauza. Gogoetak ere ez ditugu berdinak zernahi arazotan aldaketa itxuragabekoak egin bait dira geroztik... Beraz egia haundi eta garbia da lehen aipatutako Uria jaunak esandakoa, eta berriz errepikatzea onuragarri delakoan: “Gure artean, gaur egun aldizkari eta liburu larregi ez ote diren argitaratzen nago”.

Edozeinek, euskaldun berri ezjakinenak ere liburu bat egingo dizu, baina haren aurretik gai berdinez edo antzekoaz beste norbaitek egina ez dizu irakurri eta ikertuko. Eta ohitura txar hau gure kulturarentzat kaltegarria da eta akats izugarria. Honako hau duzue pekatari. Zergatik ez aitortu oraingo idazle berriek gehienak ez ditudala ezagutzen?; eta gutxiago aztertu? Eta irakur ditudan banaka batzuk ez zaizkit gogoko izan. Alderantziz, gora bihotza! pozik eta iorietan irakurri berri dizut edozein eskuetan ipini daitekeen liburua Pedro de Barrutiaren “Gabonetako ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)” E. Knorr, J. A. Lakarra, Jon Kontazar, J. M. Lekuona eta J. M. Velez de Mendizabalek moldatua. Azal eta mamiz eder izanez geroz, edozein lekutan azaltzeko hainakoa da, ase, bete eta erakusten diguna. Eskerrik anitz liburu eder hori bidali didatenei, eta Arabako Aldundi Foralari bere gain argitaratzeko ardura hartu duelako. Dena dela zenbait oharkizun egin beharra dago: lehena, egia da 1897 urtean R. M. Azkue euskaltzale jakintsu tantaiak “Euskaltzale” aldizkarian lehenengoz argitaratu zuela. Bigarren, Gabriel Aresti olarkeri bilbotarra izan zela “Euskera” aldizkarian 1960an balio berezia eman ziona. Eta hirugarren oharkizuna: hurrena idazle kaskar honek erantzuna eman ziola inor gutxik kontutan harturik.

Batik bat nere lantxoia Egan aldizkarian argitarazi nuen Azkueren izena goraitatzeko eta orobat Arestiren gehiegikeriak bere lekuan jartzeko.

Horregatik nere lan honen azken aldera eta sobera luza dudan teatro saiakera honi amaiera eman nahi nioke, irakurtzeko ontartea izan baldin baduzue behintzat. Har ezazue aldez aurretik nere esker ona.

Irakurtzeko beta eta eramankizuna izan duzuenoi adierazpen bat zor dizuet. Erabili dudan euskara “Bedayokoa” dela, alegia. Nere herri Tolosa ingurukoa, ahalik eta garbi eta errezena eta zehatz mehatz euskaldundua beste nonahiko euskaldunak nekerik gabe uler dezaten. Nere ez jakinean gramatika eta gainerako arauak emateko Euskaltzaindiaren jarraitzaile eta morroi azaldu gura nuke nire burua euskararen onerako hala delako ustean.